**PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA, FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA – CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOKO JENDEAREN ARRETAKO ETA KULTURA DINAMIZAZIOKO ZERBITZUAK ETA KONTRATATZEKO**

**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS QUE HABRÁ DE REGIR LA LICITACIÓN, MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO, PARA LA CONTRATACIÓN DE LOS SERVICIOS DE ATENCIÓN AL PÚBLICO Y DINAMIZACIÓN CULTURAL EN MUSEO CRISTOBAL BALENCIAGA POR PARTE DE LA FUNDACION CRISTÓBAL BALENCIAGA – CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA**

# EDUKIAK - CONTENIDOS


**1.KONTRATUAREN XEDEA ..... 3**

**2.MUSEOAREN FUNTZIONAMENDUA ..... 3**

2.1 EDUKIA ETA PROGRAMAZIOA ..... 3
2.2 IREKIERA-EGUTEGIA ..... 4
2.3 SARBIDEA ..... 4
2.4 MUSEOAREN GUNEAK ..... 5
2.5 BISITARI ETA ERABILTZAILEENTZAKO BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK ..... 8

**3.KONTRATUAREN XEDEAREN BARNEKO ZERBITZUAK ..... 9**

3.1 JENDEARI ARRETA EMATEKO ZERBITZUA ..... 9
3.2 DINAMIZAZIO KULTURALEKO ZERBITZUA ..... 10
3.3 ZERBITZUA KOORDINATZEA ..... 12

**4.ZERBITZUKO LANGILE-BEHARRAK ..... 14**

4.1 JENDEARI ARRETA EMATEKO LANGILEAK ..... 14
4.2 DINAMIZAZIO KULTURALEKO LANGILEAK ..... 14
4.3 ZERBITZUAREN KOORDINATZAILEA ..... 16

**5.ZERBITZUA GAUZATZEA ..... 17**

5.1 HARRERA ..... 17
5.2 ORDEZKAPENAK ..... 17
5.3 FORMAKUNTZA ..... 17
5.4 PLANGINTZA ETA JARRAIPENA ..... 18
5.5 BESTELAKO ESKAKIZUNAK ..... 19

**1.OBJETO DEL CONTRATO ..... 22**

**2.FUNCIONAMIENTO DEL MUSEO ..... 22**

2.1 CONTENIDOS Y PROGRAMACIÓN ..... 22
2.2 CALENDARIO DE APERTURA ..... 23
2.3. ACCESO ..... 24
2.4. ESPACIOS DEL MUSEO ..... 24
2.5 RECURSOS Y SERVICIOS PARA VISITANTES y USUARIOS/AS ..... 27

**3.SERVICIOS OBJETO DEL CONTRATO ..... 28**

3.1 SERVICIO DE ATENCIÓN AL PÚBLICO ..... 28
3.2 SERVICIO DE DINAMIZACIÓN CULTURAL ..... 28
3.3. COORDINACIÓN DEL SERVICIO ..... 31

**4. NECESIDADES DE PERSONAL EN EL SERVICIO ..... 32**

4.1. PERSONAL EN EL SERVICIO DE ATENCIÓN AL PÚBLICO ..... 32
4.2. PERSONAL DE DINAMIZACIÓN CULTURAL ..... 32
4.3 COORDINADOR/A DEL SERVICIO ..... 34

**5. EJECUCIÓN DEL SERVICIO ..... 35**

5.1 ACOGIDA ..... 35
5.2 SUSTITUCIONES ..... 35
5.3 FORMACIÓN ..... 35
5.4 PLANIFICACIÓN Y SEGUIMIENTO ..... 36
5.5 OTROS REQUERIMIENTOS ..... 37

## 1.KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA – CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAk (aurrerantzean, Cristóbal Balenciaga Fundazioa) Cristóbal Balenciaga museoko jendeari arreta emateko eta dinamizazio kulturaleko zerbitzua kontratatzea da, hau da, museoko harrera-lekuan, saltokian edo bestelako eremuetan jendeari harrera egiteko oinarrizko zerbitzua eta dinamizazio kulturaleko zerbitzua, plegu honetan eta administrazio-klausula partikularren pleguan aurreikusitakoaren arabera.

## 2.MUSEOAREN FUNTZIONAMENDUA

Jarraian, museoko funtzionamenduaren oinarriak deskribatuko dira:

### 2.1 EDUKIA ETA PROGRAMAZIOA

Cristóbal Balenciaga museoa museo espezializatua da, eta helburutzat du Cristóbal Balenciaga moda-sortzaile getariarraren obra eta irudia, haren testuingurua eta gaur egungo modan duen garrantzia zaintzea, ikertzea eta zabaltzea.

Museoko bildumetan sortzaile horri lotutako 5.500 erreferentziatik gora daude, gehienbat jantziak, baina baita agiriak, bozetoak, patroiak, objektuak eta abarrak ere.

Museoaren programazioa honako hauek osatzen dute:

- Erakusketen programa

    a. Balenciagari buruzko erakusketa. Urteroko periodikotasuna. Hamar hilabete inguruko erakusketak dira, museoko bildumen sorta bat erakusteko, moda-sortzailearen lanaren alde bat edo gehiago agerian uzten dituen diskurtsoaren inguruan.

    b. Modaren testuinguruaren gaineko aldi baterako bestelako erakusketak: 3-4 hilabete bitarteko 1-3 erakusketa, museoak egindakoa edo ez, jantzienak edo ez.

- Hezkuntza Programa: Cristóbal Balenciagarekin, haren balioekin eta moda-sorkuntzarekin lotutako edukiak publiko ezberdinei helaraztea ikuspegi nagusiki praktikoarekin.

    a. Programa ikastetxeekin: lantegiak eta lantegi-bisitak, museoko pedagogia-sailak eta kanpoko laguntzaileek diseinatuta, maila guztietarako egokiak (haur-hezkuntza, lehen eta bigarren hezkuntza, batxilergoa eta LH) eta dinamizazio kulturaleko zerbitzuak eginak.

    b. Programa moda-diseinuko eskola espezializatuekin: museoko hezkuntza-sailak, bilduma-sailak eta zuzendaritza orokorrak

diseinatutako proiektuak, sormeneko jakintza teknikoak helarazteko, eskola espezializatuekin eginiko lankidetza-hitzarmenen bitartez.

c. DIY programa: ehun-tekniken inguruko lantegiak helduentzat, maila guztietan, kanpoko irakasle espezializatuen laguntzarekin eskainita.

d. Familiak eta astialdia programa: lantegiak, bisitak eta jarduerak haur, familia eta astialdiko taldeentzat, museoko pedagogia-sailak diseinatuta eta dinamizazio kulturaleko zerbitzuak gauzatuta.

e. Programa profesionalak: jarduneko profesionalentzako ikastaroak eta klase magistralak, kanpoko irakasle espezializatuekin elkarlanean eginak.

- Programa kulturala: arte-emanaldiak, hitzaldiak, jardunaldiak, moda-erakusketak, ekitaldiak.
- Ikerketa-programak

Museoaren hizkuntza-politika dela eta, edukiak eta zerbitzuak 3 hizkuntzatan eskaintzen dira (euskara, gaztelania, ingelesa).

## 2.2 IREKIERA-EGUTEGIA

### 2.2.1 Jendearentzat itxitako egunak

- Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean.
- Astelehenetan, jaiegunak eta zubietako astelehenak eta uztail eta abuztuko astelehenak izan ezik.
- Horrez gain, eta erakusketa-aldaketaren ondorioz, litekeena da museoa eta museoaren jarduera ixtea eta horrek zerbitzua etetea, behe-denboraldian eta gehienez 3 aste urtean. Itxiera horiek aldez aurretik aurreikusi eta egutegian adieraziko dira eta gutxieneko zerbitzua ezarriko da.

### 2.2.2 Jendearentzako irekiera-ordutegia:

Cristóbal Balenciaga museora etorritako bisitarien kopurua asko aldatzen da urtaro batetik bestera, eta, ondorioz, horren arabera egokitzen dira jendeari irekitzeko ordutegia eta beharrezko zerbitzu-maila; hori aztertu eta berrikusi egiten da, orobat. Horregatik, ordutegia zein zerbitzu-maila lau-hilekoka ezartzen dira, hilabeteko aurrerapenarekin gutxienez.

## 2.3 SARBIDEA

Sarrera eskuratuta, bisitariak museko erakusketetan sar daitezke.

Sarreren salmenta telefonoz erreserba eginez, Internet bidez edo museoko harrera-lekuan bertan egiten da, bai eta museoak baimendutako hirugarren agente batzuen bitartez ere (sarrerengatik trukatzen diren bonuak ematen dituzte).

Sarrerak museoko harrera-lekuan[1] saltzen dira.

Museorako bisita gida batez lagunduta (aurretik erreserba eginda), programatutako jardueretako batean parte hartuz (hau ere erreserba bidez) edo nork bere kabuz egin daiteke. Eta banaka edo taldeka egin daiteke. Azken kasu horretan, bisita librea bada ere, erreserba egitea gomendatzen da ere.

Sarrera, oraingoz, bakarra izango da eta horrekin, museoko gune publiko guztietara sartu ahal izango da. Hala ere, etorkizunean publikoak eta guneak sarrera desberdinen bidez banatzea komeni den hausnar daiteke.

Jarduerek matrikularen bidez sartzeko formula propioa izan dezakete, hezkuntza-arloak kudeatuta, edo museoko ticketing sisteman sartuta egon daitezke, harreratik kudeatu beharreko beste zerbitzu bat bezala.

Museoko sarreren tarifak eta beherapenak urtero berrikusten dira. Orientagarri modura, 2021an:

- Sarrera arrunta: 10 euro.
- Sarrera murriztua: 7 euro.
- Taldeen beherapena (10etik gora): % 10.
- Doan: 12 urtetik beherako umeak, Museoaren lagunak, ICOMeko kideak, prentsa.
- Bestelako murriztapenak, kasu bakoitzeko hitzarmenaren arabera.

Sarrera orokorraren tarifak aldatu egin daitezke museoak une bakoitzean eskaintzen dituen edukien arabera edo denboraldiaren arabera.

## 2.4 MUSEOAREN GUNEAK

### 2.4.1 GUNE PUBLIKO OROKORRAK

Bisitaren hurrenkera logikoari jarraikiz:

**Hall orokorra:** Hall honetan, harrera dago eta museoa bertatik hasten da bisitatzen. Hallean, noizean behin, ekitaldiak egin daitezke.

**Harrera:** Gune horretan, bisitariak ibilbideari eta interesguneei buruzko informazio jasoko du. Horrez gain, aurrez programatu gabeko bisitek jarraibideak jasoko dituzte eta, horrela, bisita behar bezala egingo ahal izango dute. Harreraren ondoan erabilera libreko jantzitegi-zerbitzua dago (armairua). Urteko une jakin batzuetan, baliteke harrera-leku eta saltokiko guneak eta zerbitzuak batuta egotea.

**Erakusketa-areto zentralak:** Oraingoz hall orokorraren ondoan dagoen beheko solairuko gunean hasiko da bisita. Gune horrek

[1] Dendan eta/edo harreran dagoen erakusmahaian.

Cristóbal Balenciagaren irudia testuinguruan jartzeko gunea izena du. Ondoren, bisita bigarren solairutik hasita, beheranzko zentzuan egingo da. Bai bigarren solairuan bai lehenengoan, bisitaria ondoz ondoko 6 aretotan barrena ibiliko da eta areto horietan, orokorrean, bitrinen barnean dauden Cristóbal Balenciagaren pieza originalak ikusi ahal izango ditu, gehienetan. Bisitariak informazioa jasoko du aretoko azalpen-testuen eta bitrina bakoitzeko kartelen bitartez.


**Aldamar jauregiko erakusketa-aretoak:** Bisita horretara, erakusketa-areto zentraletako ibilbide naturaletik joaten da. Museoaren erakusketa-programazioaren arabera irekita dauden aldi baterako aretoak dira.

**Denda:** Beheko solairuko erakusketa-ibilbidearen amaieran dago eta, gune horretatik, bisitaria irteerara joan daiteke edo beheko solairuko gainerako gune publikoetan, hau da, erabilera anitzeko aretoetara eta/edo kafetegira joan daiteke, museoko bisita amaitu baino lehen. Gerta daiteke dendako zerbitzua museoko irekiera-ordutegian iraunkorra ez izatea; horregatik, harreran merchandisinga saltzea, une honetan, kontratuaren barnean dago. Era berean, saltokiko gunea bisitariei harrera egiteko gune bihur daiteke, eta bi lan horietarako erabili.

**Kafearen txokoa,** saltokiaren ondoan, atsedengune bat da, eta edariak eta freskagarriak erosteko makinak daude.

**Erabilera anitzeko aretoa:** Hainbat ekitalditarako balio duen gune bete gabea da: desfile, aldi baterako erakusketa, zenbait ekintza sozial eta kulturaletarako. Alokatzeko aukera dago. Sarbide orokorra edo murriztua izan dezake, garaiaren eta programazioaren arabera.

**Kafetegia**, zenbait erabilera ahalbidetzeko prestatutako gunea da, kanpoko kudeaketa duen kafetegia, besteak beste. Sarritan, baturik dago erabilera anitzeko aretoarekin, eta alokatu ere egin daiteke. Sarbide orokorra edo murriztua izan dezake, garaiaren eta programazioaren arabera.




OHARRAK | NOTAS

LEYENDA ZONAS MOBILIARIO COMERCIAL

PLANTA BAJA

- RECEPCIÓN
- ZONA DE DESCANSO / TIENDA
- SALA POLIVALENTE
- SALIDA EXPOSICIÓN
- CAFETERIA

### 2.4.2 SARRERA MURRIZTUKO GUNE PUBLIKOAK

Erakusketa-programatik kanpoko jardueren ondorioz, baliteke bisitariak bestelako guneetan sartzea:

**Ikasgela didaktikoak**: eraikin didaktikoan kokatuta (1., 2. eta 3. solairuak), askotariko jarduerak eta lantegiak hartzen dituzte, ikasleei eta familiei zuzendutako hezkuntza-programaren barruan normalean. Askotariko ekipamenduak eta edukierak dituzte.

**Auditoriuma:** eraikin didaktikoan kokatuta (3. solairua), 50 lagun sar daitezke; zabalkundeko jarduerak biltzen ditu, besteak beste. Alokatzeko aukera ere badago.

**Ganbara:** Aldamar jauregiko 4. solairuan kokatuta, hezkuntza-programako jarduerak hartzen ditu, publiko espezializatuentzat normalean, eta alokatzeko aukera ere badago.

**Dokumentazio-zentroa**: Aldamar jauregiko 3. solairuan kokatuta, aurreikusita dago aurki publiko espezializatuarentzat irekitzea.

### 2.5 BISITARI ETA ERABILTZAILEENTZAKO BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK

Museoak askotariko baliabideak eta zerbitzuak jartzen ditu berau bisitatzen duten pertsonen esku; horrelakoak momentu bakoitzean alda daitezke eta baliteke sarreraren prezioaren barruan jasota egotea edo ez:

- Erabilera libreko armairuak.
- Kafearen txokoa.
- Egokitutako zerbitzuak.
- Igogailuak eta eskailera mekanikoak, ibilbide irisgarrirako diseinua.
- Gurpil-aulkiak.
- Makila-aulkiak.
- Ikusmen urrikoentzat egokitutako testuak.
- Ukimen bidezko baliabideak.(erakusketaren arabera)
- Museoan gidatzeko edo bisitaren eduki gehigarriak kontsultatzeko tresnak: audiogidak, mugikor eta tabletetarako aplikazioak, etab. erakusketaren arabera
- Webgunea eta sarrerak online erosteko aukera.
- Etengabeko harrera- eta informazio-zerbitzua.
- Dinamizazio kulturaleko zerbitzuak:
    - Museoko edukiari eta/edo testuinguru geografikoari (Getaria) buruzko bisitaldi gidatuak/iruzkinduak (programatuak edo eskariaren araberakoak), museoaren barruan zein museotik kanpo, hauentzat:
        - Publiko orokorrarentzat.
        - Publiko espezializatuarentzat (Moda, FAM trips, Press trips, etab.).
        - Hezkuntza-gaitasun anitzak dituztenentzat.
    - Lantegi-bisitaldiak eta lantegi pedagogikoak, eskariaren arabera, ikasle, familia eta abarrentzat.
    - Testuinguruan kokatzeko eta bitartekaritzako zerbitzuak aretoan.

- Hezkuntza-programa espezializatuari, erakusketa-programari, ikerketa-programari eta abarrei lotutako beste jarduera eta zerbitzu batzuk.

## 3.KONTRATUAREN XEDEAREN BARNEKO ZERBITZUAK

### 3.1 JENDEARI ARRETA EMATEKO ZERBITZUA

Zerbitzu honen barruan sartzen dira jendearekin aurrez aurre edo telefonoz harremanetan egotea: bisitariari harrera egitea eta informazioa ematea, sarrerak, zerbitzuak eta merchandisinga erreserbatu eta saltzeko jarduerak, etab., bai eta barneko administrazio-jarduerak eta gune jakin batzuk kudeatzeko eta ikuskatzeko jarduerak ere.

Berdin egiten dira harrera-lekuko erakusmahaitik edo saltokiko erakusmahaitik edo, hala dagokionean, Fundazioak erabakitzen duen gunetik.

Orientazio modura, enpresa adjudikaziodunak bete behar dituen funtzioak zehaztu dira, eta funtzio horiek jendeari harrera funtzioari esleitutako langileek egingo dituzte:

- Informazioa: museoaren edukiei, zerbitzuei eta baldintzei buruzkoa edo sartzeko politikei buruzkoa, haren testuinguru turistikoari eta abarrei buruzkoa.
- Bisitariei arreta ematea: zalantzak, kontsultak, erreklamazioak.
- Sarbidea kontrolatzea eta museoan sartzea ukatzeko politika betetzea.
- Bisita-fluxuak erregistratzea eta bisita horien ezaugarrien kontrola estatistikoa egitea: jatorria, profila, adin-taldea, bisita-mota, sexua, etab.
- Bisiten gogobetetasunari buruzko informazioa lortzea.
- Audiogidak, liburuxkak edo Fundazioak bisitarako une bakoitzean programatzen duen beste edozein bitarteko osagarri ematea, kudeatzea eta erabiltzen laguntzea.
- Liburuxken, horniduren eta bestelako baliabideen stocka kontrolatzea.
- Museoko sarrerak saltzea eta fakturak egitea.
- Kutxa egunero ixtea, arkeoa.
- Bisita gidatuen, hezkuntza-jardueren eta ekitaldien telefono bidezko erreserbak egitea.
- Internet bidezko erreserbak kontrolatzea, museoak egindakoak edo itundutako beste plataforma batzuenak.
- Bisita adostuak antolatzea.
- Museoko espazioen irekierako eta itxierako kontrol-zerrenda egitea. Matxuren eta bestelako gorabeheren abisuak ematea, Fundazioak ezarritako protokoloei jarraiki.
- Kontsultei eta erreserbei buruzko informazioa iraultzea, horien jarraipena egiteko.

- Galdutako objektuen eta kexen nahiz iradokizunen kudeaketa egitea, Fundazioak gai horri buruz duen politikaren arabera.
- Ticketing-sisteman tarifa eta sustapen berriak ezartzea.
- Museoko merchandisinga saltzea eta horren izakinak kontrolatzea, eta
- artikuluak saltzeko sisteman salneurria eta izakinen maila ezartzea.
- CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOArekin elkarlanean aritzea Larrialdi Planak zehaztutako jarduera guztietan, suteen, ebakuazioen eta abarren simulakroei eta egiazko egoerei dagokienez.

## 3.2 DINAMIZAZIO KULTURALEKO ZERBITZUA

Dinamizazio kulturaleko jarduerek zerikusia dute museoko programen edukiak adierazi, interpretatu eta jendeari jakinaraztearekin, museoaren barruan zein, salbuespenez, kanpoan.

Jarduera horiek museoaren hizkuntza-politikan aurreikusitako hiru hizkuntzetan egiten dira: euskara, gaztelania, eta ingelesa.

Hezkuntza-arloak dinamizazio-jarduera horiek (hezkuntza eta bitartekaritza) gauzatu behar dituzten pertsonek programa guztietan beren funtzioa ahalik eta ondoen garatzeko behar dituzten materialak eta edukiak emango ditu.

Ezarri/sortu berri diren jarduera/prometan (adibidez, aldi baterako erakusketa berria edo eskola-tailer berria), hezkuntza-arloak zuzeneko prestakuntza-saioak antolatuko ditu bitartekaritza-taldearentzat, eta nahitaez bertaratu beharrekoak, eta Fundazioak bere gain hartuko du horien kostua, aurreikusitako egutegiaren gainean zerbitzuetarako eskainitako prezioaren arabera.

### 3.2.1 Museoaren erakusketaren gaineko bisitaldi gidatuak

Erakusketaren gaineko bisitaldi gidatuak programatuak edo eskariaren araberakoak izan daitezke.

Lehenengoek aldez aurretik finkatutako ordutegia izango dute, eta bisitariek modu librean har dezakete parte horietan, dagokion tarifa ordainduta.

Eskariaren araberako bisitaldiak gutxienez 48 ordu lehenago eskatu behar dira (lizitatzaileak gutxieneko epe laburragoa eskain dezake proposamenean).

Gida bakoitzaren taldeak, gehienez ere, 20 pertsonakoak izango dira, baina museoaren zuzentarauen arabera egokitu daitezke.

Hartzaileak zein diren, bisitaldien gaia egokitu ahal izango da hartzaile horien arabera:

- Publiko orokorreko bisitaldiak
- Hezkuntza-programaren bisitaldiak (horren edukiei egokituta).
- Hezkuntza-premia bereziak dituztenentzako bisitaldiak

- Prentsa-bisitaldiak

### 3.2.2 Museoaren beste eduki batzuei buruzko bisitaldi gidatuak/iruzkinduak

Bestelako bisitaldi gidatuak edo iruzkinduak egin daitezke museoaren berezko edukien gainean (FAM trips, MICE, etab.) edo inguruko beste baliabide batzuekin batera diseinatutako planen gainean.

Bisitaldi horien dinamika aurrekoen antzekoa izango da.

### 3.2.3 Hezkuntza-programaren jarduerak

Cristóbal Balenciaga Fundazioaren hezkuntza-sailari dagokio jardueren programa sortzea eta planifikatzea (lantegiak, ikastaroak, etab.), Cristóbal Balenciaga Museoko helburuak eta publiko hartzailea kontuan hartuta.

Jarduera horiek programatuak edo eskariaren araberakoak izan daitezke.

Taldeak, gehienez, 25 pertsonakoak izango dira, ikastetxeen kasuan, (irakasleekin batera egongo dira) eta, helduen kasuan, 15-20 pertsonakoak izango dira jardueraren arabera.

### 3.2.4 Bitartekaritza-jarduerak

Programazioaren, bisitari kopuruaren eta egutegiaren arabera, Fundazioko hezkuntza-sailak bisitagarri diren erakusketen edukiari buruzko bitartekaritza-jarduerak programatuan ditzake.

Jarduera horiek museoko atarian zein erakusketa-aretoetan izango dira, eta zeregin hori laguntzeko baliabideekin batera egingo dira (eduki osagarria tabletetan, gune interaktiboak, etab.).

Kasu bakoitzean erabilitako formula eta aldizkakotasuna museoko hezkuntza-sailak erabakiko ditu.

Orientazio modura, enpresa adjudikaziodunak bete behar dituen funtzioak zehaztu dira, eta funtzio horiek dinamizazio kulturaleko funtzioari esleitutako langileek egingo dituzte:

- Dinamizazio-jardueretarako edukiei buruzko prestakuntza jasotzea, hori barneratzea eta dinamizatzeko lanean aplikatzea gidoiak eginez, informazio osagarria bilatuz eta abar.
- Bisita gidatuak antolatzea eta normalean sortzen diren hainbat egoerei (adibidez: ibilbideetan egoten diren interferentziei, jende gehiegi dagoenean, bisitetan atzerapenak daudenean, etab.) konponbidea ematea.
- Bisita dagokion hizkuntzan egitea .
- Fundazioarekin lankidetzan, hezkuntza-jardueren programa gauzatzea (lantegiak, konferentziak, ikastaroak, etab.).

- Bisitaldi eta jardueretarako material osagarriaren beharrak identifikatzea/koordinatzea.
- Hezkuntza-programako jarduerentzat zehaztutako gunea aurretiaz prestatzea eta, amaitutakoan, jasotzea.
- Bitartekaritza-ekintzak egitea museoko hezkuntza-arloak programatutako moduan eta denboran.
- Jarduerak eta bisitaldiak gauzatzeak ekarritako emaitzen jarraipena egitea eta hobekuntzak proposatzea.
- CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOArekin elkarlanean aritzea Larrialdi Planak zehaztutako jarduera guztietan, suteen, ebakuazioen eta abarren simulakroei eta benetako egoerei dagokienez.
- Publikoari arreta emateko arloaren lanetan laguntzea, hala badagokio, zerbitzu horren laguntzaile modura.
- Eta abar.

### 3.2.5 Zerbitzu bereziak

Balenciaga Fundazioak gutxienez 72 orduko aurrerapenarekin eskatu ahal izango du jendearentzako arretako eta dinamizazio kulturaleko langileek zerbitzu bereziak ematea. Zerbitzu bereziak dira museoaren ohiko ordutegitik kanpo eta Getariatik kanpo egiten diren horiek.

Eskaini beharreko zerbitzua ez bada Getarian egin behar, Fundazioari, joan-etorrietarako denboraz gain, horri lotutako gastuak ere jasanaraziko zaizkio, justifikatuta.

## 3.3 ZERBITZUA KOORDINATZEA

Arduradun koordinatzaile batek zuzenduko du zerbitzua, eta hauek izango dira horren funtzio nagusiak:

- Jendeari arreta emateko pertsonal guztiak egin beharreko funtzioak koordinatzea Fundazioarekin harremana duen solaskide bakarra izango baita, informazioa eman beharko du eta pertsonen zein funtzioen asteko plangintza ere jakinarazi beharko du.
- Pertsonen, ordutegien eta eginkizunen plangintza optimizatzea, museoko bisitariei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko eta izendatutako lantaldeak ahalik eta egonkortasunik handiena izateko.
- Cristóbal Balenciaga Fundazioaren eskaerei erantzutea eskariaren araberako zerbitzuei dagokienez, eta eskaera horiek plangintzan txertatzea.
- Zerbitzuan sortzen diren gatazkak, intzidentziak eta kontingentziak ebaztea, eta horretarako erakunde adjudikaziodunak diseinatutako

protokoloak aplikatzea, museoaren irekiera ordutegi eta egutegiaren barruan.

- .Kontratuaren baldintzak betetzen direla bermatzea, eta horretarako kontrol-tresna egokiak ezartzea.
- Zerbitzuaren jardun-protokoloak idaztea eta eguneratuta edukitzea.
- Zerbitzuan langile berriak sartzea eta lantaldean ahalik eta lasterren integra daitezen zaintzea.
- Fundazioari lehendik programatuta dauden jarduerez gain, jarduera osagarriak proposatuko dizkio edo bisitari-talde berriak atzemateko proposamena egingo dio.
- Eskainitako zerbitzuaren kalitate-kontrola ezarriko du eta eskatutako betekizunak betetzen direla bermatuko du, kalitate turistikoko SICTED eta tankerako ziurtagiriak lortzeko.
- Fundazioak eskatuta, txostenak egitea.

- Eta abar.

## 4.ZERBITZUKO LANGILE-BEHARRAK

Erakunde adjudikaziodunak beharrezko langileak jarri beharko ditu, behar bezala kualifikatuta eta prestatuta egon beharko du zerbitzu bakoitzaren eginkizunetan eta edukietan, eta kualifikazio eta prestakuntza hori erakunde esleipendunaren kontura izango da.

Fundazioak uste badu zerbitzua eskaintzen duten langileen prestakuntza ez dela behar adinakoa edo baxua dela, datu hori jakinaraziko dio, idatziz, erakunde adjudikaziodunari eta hilabete natural bateko epean, pertsona hori ordeztu beharko du.

Jarraian, langileen profilak eta gutxieneko zerbitzu-mailak deskribatzen dira:

### 4.1 JENDEARI ARRETA EMATEKO LANGILEAK

Jendeari arreta emateko zerbitzua etenik gabe eskainiko da museoa jendearentzat irekita dagoen ordutegian.

Eginkizun hori betetzen duten langileek, gutxienez, lanbide-heziketako goi-mailako titulazioa izan behar dute turismoan, merkataritzan, harreman publikoetan edo antzekoetan, eta aurretiko eskarmentua edukitzea (2 urtekoa gutxienez) era horretako jardueretan; hiru hizkuntzak (euskara, gaztelania, ingelesa) gutxienez B2 mailan, jakitea; jendearen aurrean lan egiteko jarrera ona eta enpatia izatea; antolatzeko gaitasuna izatea, eta, administrazio-zereginetarako, mentalitate sistematiko eta zorrotza izatea.

Frantsesa jakitea eta hizkuntza horretan solasaldia egiteko gaitasuna izatea (gutxienez, B1 maila) ere beharrezkotzat joko dira.

Zerbitzu hau emango duten pertsonei dagokien hizkuntza bakoitzaren maila modu ofizialean egiaztatu beharko da.

Era berean, langile horiek gaitasuna izan behar dute larrialdietan lehen sorospenak egiteko, bai eta zentroko LZ eta desfibriladorea erabiltzeko ere. Hori guztia dagokion ziurtagiriarekin justifikatuko da.

Museoko profil horren ordutegirako behin-behineko egutegia eta gutxieneko lanpostu kopurua 1. eranskinean zehaztuta dago urte baterako, eta kontratuko hasieran eta lauhileko natural bakoitzean berretsiko da, hilabeteko aurrerapenaz.

### 4.2 DINAMIZAZIO KULTURALEKO LANGILEAK

Dinamizazio kulturaleko langileek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak menperatu behar dituzte, C1en pareko maila gutxienez; euskararen kasuan, modu ofizialean egiaztatu beharko da. Gainera, zerbitzua ingelesez eskainiko duten langileek C1 maila modu ofizialean egiaztatuta eduki beharko dute.

Hizkuntza horretan dinamizazio kulturaleko jarduerak garatzeko B2-ren gutxieneko maila parekatua duen frantsesaren ezagutza gehigarria baloratu egingo da, Karatulako 12. puntuan ezarritako esleipen-irizpideen arabera.

Komunikazio-gaitasun bikaina duten pertsonak izango dira, edukiak asimilatzeko, laburbiltzeko eta entzuleen arabera egokitzeko trebeak. Horrez gain, baldintza hauek ere bete beharko dituzte: modaren gaiarekiko jakin-mina, zaletasuna eta zorroztasuna izatea; pertsonarteko elkarrizketak eta taldeko elkarrizketak egiteko gaitasuna izatea; denbora kudeatzen trebeak izatea; baliabideak, enpatia eta erantzuteko gaitasuna izatea, ustekabekoak gainditzeko.

Prestakuntzari dagokionez, gutxienez graduko unibertsitate-titulua eskatzen da, alor hauetan: artearen historia, arte ederrak, diseinua, moda, hezkuntza, pedagogia edo kultur arloarekin pareka daitekeen besteren bat.

Era berean, zerbitzua gauzatzen duen lantaldearen barruan, langileen erdiek umeen kolektiboekin eskarmentua dutela bermatu beharko da, eta, gutxienez, bi lagunek eskarmentua eduki beharko dute dibertsitate funtzionala duten pertsonei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko, desgaitasun maila eta mota ezberdina duten pertsonei, adineko pertsonei zein gaitasun bereziak dituzten pertsonei izan.

Gainera, profil horren polibalentzia oso gomendagarria da jendeari arreta emateko zerbitzuaren laguntzaile gisa zereginak gauzatzeko, horretarako gaikuntza edukiz gero.

Museoak ezarritako ordutegi osoan langileak egon beharko dira egunero, museoko edukien dinamizazio kulturaleko eginkizunak gauzatzeko.

Museoko profil honen ordutegirako behin-behineko egutegia eta gutxieneko lanpostu kopurua 1. eranskinean zehaztuta dago, urte baterako, eta kontratuko hasieran eta lauhileko natural bakoitzean berretsiko da, hilabeteko aurrerapenaz.

Gainera, eskariaren araberako jardueretan, kontratistak jarduera horiek egiten dituzten langile gehigarriak eskaini beharko ditu, bisitaldi gidatuak, hezkuntza-programako jarduerak edo bitartekaritza-jarduerak izan, betiere eskaera hori 48 ordu lehenago egiten bada. Lizitatzaileek epe hori hobetu ahal izango dute eskaintzetan, gutxieneko aurrerapen-aldia gutxituta.

Enpresa adjudikaziodunak, aurreikusitako egutegiaren arabera zerbitzua eskaintzen dutenez gain, eta eskatuz gero, bi pertsona gehiago ere bideratuko ditu, zerbitzua hizkuntza berean emateko prestakuntza eta gaitasuna dutenak (euskara, gaztelania, ingelesa).

Cristóbal Balenciaga Fundazioak mota honetako zerbitzuetarako eskatuko duen gutxieneko iraupena bi ordukoa izango da.

Kultura dinamizatzeko eginkizunean dauden pertsonek, museoan zerbitzua ematen ari diren unean, lehentasuna eman beharko diote – Programatutako edo eskatutako jarduerarik ez badago – Museoko aretoetan bitartekari-lana egiteari, eta une jakin batzuetan baino ez, harreran laguntza-zerbitzuak emateari.

## 4.3 ZERBITZUAREN KOORDINATZAILEA

Zerbitzuaren koordinatzaileak gutxienez 3 urteko aurretiko eskarmentua eduki behar du planifikatzeko eta lantaldeak antolatzeko antzeko eginkizunetan. Euskaraz eta gaztelaniaz jakin behar du, behar bezalako komunikazioa izateko CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOArekin zein kontratura bideratutako langileekin. Profilaren ezaugarrien artean garrantzitsua da entzuteko gaitasuna, irtenbideak proposatzeko ekimena eta aldatzen diren beharretara egokitzeko malgutasuna izatea, bai eta lantaldearekiko lidergo-ahalmena eta etengabe hobetzeko mentalitatea edukitzea ere.

Aurreikuspenen arabera, profil horrek urtean 180 orduko arduraldia izango du proiektuan; horietatik % 50 gutxienez aurrez aurrekoak izan beharko dira museoan, eta koordinazio-lan hori soilik egingo da.

Gainera, eta zerbitzuaren intzidentziak konpontzeko, profil hori telematikoki horiei erantzuteko prest egon beharko da, egunero, museoaren zerbitzu ordutegian.

## 5.ZERBITZUA GAUZATZEA

Aurreikusitako egutegia eta eskariaren araberako zenbatetsitako orduak betetzeko, enpresa adjudikaziodunak behar adina langile bideratuko ditu zerbitzua gauzatzera, aurreko 4. klausularen jarraibideen arabera, zerbitzua kudeatzeko behar den koordinazio-arduraduna eta solaskide bakarra barne.

### 5.1 HARRERA

Zerbitzuan sartzeko harrera-plana proposamen teknikoan zehaztu beharko da, eta baloratu egingo da.

### 5.2 ORDEZKAPENAK

Erakunde adjudikaziodunak zerbitzua eskaintzen duten langileen absentzia guztiak ordeztu beharko ditu, absentzia horiek izateko arrazoia edozein dela ere. Zehazki, ustekabekoetan langile bat lanpostuan ordezteko gehieneko denbora 90 minutu izango da. Epe hori hobetu ahal izango du lizitatzaileak bere eskaintzan.

### 5.3 FORMAKUNTZA

Enpresa adjudikazioduna izango da langileak, dagozkien laneko zereginak egiteko, behar bezala prestatuta eta gaituta egotearen erantzule, eta horretarako inplementatuko den formakuntza-plan zehatza baloratuko da. Plan horren kostua enpresa adjudikaziodunaren gain joango da, eta arlo hauek hobetzeko jarduketak jaso ahal izango dira:

Formakuntza orokorra

- Zeharkako formakuntza taldeari: prebentzioa eta segurtasuna lanpostuan; lehen sorospenak, askotariko gaitasunak dituzten pertsonentzako arreta, genero-berdintasunari buruzko komunikazio-arloko sentsibilizazioa.
- Jendearen arretako zereginak dituzten pertsonentzako formakuntza: jendearen aurrez aurreko arreta, telefono eta email bidezkoa; oinarrizko administrazio-ezagutzak (fakturak, ordainketak, kontaketak, stockaren kontrola…); kexak eta iradokizunak kudeatzea.
- Dinamizazio kulturaleko zereginak dituzten pertsonentzako formakuntza: ahozko adierazpena, hitzik gabeko hizkuntza, bisitetako langileak eta edukiak prestatzea etor daitezkeen publiko-mota guztientzat: orokorra, haurrak, askotariko gaitasunak dituztenak, gizarte-bazterketa arriskuan daudenak, hirugarren adinekoak, etab.

Cristóbal Balenciaga Museorako berariazko formakuntza:

- Jendearen arretako zereginak dituzten pertsonentzako formakuntza: Cristóbal Balenciagari buruzko oinarrizko ezagutza, eta Museoaren jarduerei eta zerbitzuei buruzkoa; Museoaren harrerako eskuliburuetan

dauden funtzionamendu-protokoloen eta lan-prozesuen eta horiek kudeatzeko tresna informatikoen ezagutza xehea.

- Dinamizazio kulturaleko zereginak dituzten pertsonentzako formakuntza: Modaren historiari eta Cristóbal Balenciagari buruzko ezagutza; Museoko eskuliburuen edukien eta laneko protokoloen ezagutza; Museoko bisita, tailer edo bitartekaritzetako eduki zehatzei buruzko ezagutza.

  Gutxienez 40 orduko formakuntza hartuko da aintzat urteko eta pertsonako.

  Nolanahi ere, Plegu hauetako 3.2 klausulan jasota dagoen moduan, erakusketekin lotutako aldi baterako edukiei edo bitartekaritza- eta dinamizazio-jarduera sortu berriei dagokienez, formakuntza-saioak aurreikusiko dira dinamizazio kulturalean dabiltzan guztientzat. Saio horiek hezkuntza-arloak antolatuko ditu, eta eskainitako orduak kontratuaren kontura izango dira, aurreikusitako egutegiaren gainean zerbitzuetarako eskainitako prezioaren arabera. Gehienez ere 8 orduko prestakuntza izango da pertsonako eta erakusketa/jarduera bakoitzeko. Hortik aurrera, "test" erako bisitak egingo ditu Fundazioak, bermatzeko zerbitzuan dauden pertsonek edukiak barneratu dituztela eta transmititzeko gai direla. Proba hori gainditzen ez badute, Fundazioak ez ditu bere gain hartuko ordu gehigarriak.

## 5.4 PLANGINTZA ETA JARRAIPENA

Enpresa adjudikaziodunak behar diren kontrol-tresnak ezarriko ditu langileen gainean honako hauek betetzen dituztela ziurtatzeko: ordutegia, uniforme-baldintzak, zerbitzu-denboraren erabilera, Fundazioaren bitartekoak (Internet, etab.) beharrezko xedeetarako erabiltzea eta zerbitzuaren kalitate-adierazleak. fisiko edo teknologikoak eta zeregin horietarako denbora enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

Horren proposamena baloratu egingo da.

Enpresa adjudikaziodunak museoan zerbitzua eskainiko duten langileen plangintzaren 30 eguneko informazioa emango dio Fundazioari, baita zerbitzuaren ordutegien gainekoa ere, astero eguneratuko da, eta unean-unean emango du plangintza honen aldaketen berri.

Era berean, Fundazioaren informazioa egunero gaurkotuko du, egindako erreserbei eta langileen esleipenei dagokienez.

Enpresa esleipendunaren koordinatzaileak hileko memoria bat aurkeztu beharko du, non honako hauen berri emango dion fundazioari:

- Jendearen kontsultak/jakin-mina/iradokizunak.

- Bisitarien kopurua eta horien ezaugarriak: jatorriaren/profilaren/adin-taldearen/bisita-motaren/sexuaren arabera banatuta.
- Gauzatu diren jarduera didaktikoen historia.
- Garatutako funtzioetarako jarritako pertsonalaren dedikazioa.
- Aparteko jarduerak.
- Jarduera programatuak gauzatzeak ekarritako emaitzen jarraipena egitea.
- Fundazioari lehendik programatutako jarduerez bestelako jarduera osagarriak proposatzea, eta horien kostua adieraziko da.
- Bisitari-talde berriak atzemateko proposamenak egitea Fundazioari
- Eskariaren araberako zerbitzuen eta zerbitzu berezien orduak, egindako jarduera, eguna eta pertsona zehaztuta.
- Emandako zerbitzuan balizko aldaketak egitea zerbitzua hobeto aprobetxatzeko helburuarekin, erabiltzaileari zerbitzu hobea ematea eta Fundazioari edozein eratako aurrezki ekarriko dion birmoldaketa egitea.

Enpresa adjudikaziodunak egindako funtzioak Cristóbal Balenciaga Fundazioak gainbegiratuko, kontrolatu eta ebaluatuko ditu, museoko kudeaketaren bidez.

FUNDAZIOAk gainbegiratzeko eskumena du, baita zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko parametroak ezartzekoa ere (esaterako, erreklamazioen liburua edo bisitariak irtetera doazenean ematen duten informazioa), eta egokitzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ahal izango ditu hitzartutakoa zorrozki betetzeko.

## 5.5 BESTELAKO ESKAKIZUNAK

Erakunde adjudikaziodunak indarrean dagoen legedia beteko du eta, zehazki, laneko arriskuak prebenitzeari buruzkoa, erreferentziazko hitzarmen kolektiboaren aplikazioari, datu pertsonalaren babesari eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeari dagokionez aplikatu beharreko legeriari buruzkoa.

Enpresa adjudikaziodunak museoan zerbitzua eskaintzeko diseinatutako uniformea eman beharko die, bere kontura, museoan arituko diren langile guztiei, museoaren irudi instituzionala errespetaturik. Uniforme hori negurako zein udarako egokituta egongo da (gutxieneko kostua: 250 €/uniforme), eta txukun edukiko dute beti. Enpresa adjudikaziodunak zerbitzua ematen duen enpresaren izena identifikatzen duen bereizgarriren bat jar dezake jantzian, baina pertsonalaren uniformeen bidez transmititu nahi den museoko irudi instituzionala ezingo du aldatu, eta ezingo dio kalterik egin uniformeen dotoreziari eta kalitateari. Lizitazio honetan baloratu egingo da uniformearen proposamena.

1.ERANSKINA. Ordutegi eta zerbitzu mailen aurreikusitako egutegia (urte baterako, Kontratuaren hasieran konfirmatzeke).

## KONTRATU BERRIA 2021-2022

**IRAILA**

| A | As | Az | Ot | Ol | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | 26 | |

**URRIA**

| A | As | Az | Ot | Ol | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

**AZAROA**

| A | As | Az | Ot | Ol | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | | | 1 |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | | | | | |

**ABENDIA**

| A | As | Az | Ot | Ol | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

**URTARRILA**

| A | As | Az | Ot | Ol | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | **6** | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 20 | 30 |
| 31 | | | | | | |

**OTSAILA**

| A | As | Az | Ot | Ol | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | | | | | | |

**MARTXOA**

| A | As | Az | Ot | Ol | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | **19** | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

**APIRILA**

| A | As | Az | Ot | Ol | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | **14** | **15** | **16** | **17** |
| **18** | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | |

**MAITZA**

| A | As | Az | Ot | Ol | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | **1** |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

**EKAINA**

| A | As | Az | Ot | Ol | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | | |
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

**UZTAILA**

| A | As | Az | Ot | Ol | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| **25** | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

**ABUZTUA**

| A | As | Az | Ot | Ol | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| **15** | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

| DENBORALDIAK | ORDUTEGIAK | | | | Ordu kopurua/jardunaldia |
|---|---|---|---|---|---|
| | HARRERA | DINAMIZAZIOA | HARRERA 2 | DINAMIZAZIOA2 | |
| BEHEKOA1 | 10:30-15:30 | 11:00-13:30 | | | 7,5 |
| BEHEKOA2 | 10:30-15:30 | 11:00-15:00 | | | 9 |
| ERTAINA1 | 9:30-19:30 | 10:00-14:00 y 16:00-18:30 | | | 16,5 |
| ERTAINA2 | 09:30-19:30 | 10:00-14:00 y 16:00-19:00 | 11:00 - 15:00 | | 21 |
| GOIKOA1 | 09:30-20:30 | 10:00-14:00 y 16:00-20:00 | 11:00 - 19:00 | | 26 |
| GOIKOA2 | 09:30-20:30 | 10:00-14:00 y 16:00-20:00 | 11:00 - 19:00 | 12:30-14:00 y 16.30 -18:30 | 29,5 |
| BEHEKOA 3 | 10:30-15:30 | 11:00-15:00 | | 11:00-13:30 | 11,5 |
| FORMAKUNTZA | 4 ORDU GEHIGARRIAK ( 6 dinamizatzaileen osatutako taldea) | | | | 24 |

## 1.OBJETO DEL CONTRATO

El objeto de la presente licitación lo constituye la contratación del servicio de atención al público y dinamización cultural en el Museo Cristóbal Balenciaga por parte de la FUNDACIÓN CRISTOBAL BALENCIAGA – CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA (en adelante, Fundación Cristóbal Balenciaga, o, indistintamente, entidad contratante), que comprenderá el servicio base de atención al público en la recepción, tienda u otros espacios del Museo y el servicio de dinamización cultural, según lo previsto en el presente Pliego y en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y en su Carátula.

## 2.FUNCIONAMIENTO DEL MUSEO

A continuación, se describen las bases generales del funcionamiento del Museo previsibles para el periodo de duración del contrato, pero susceptibles de modificación:

### 2.1 CONTENIDOS Y PROGRAMACIÓN

El Museo Cristóbal Balenciaga es un museo especializado cuya misión es la conservación, investigación y difusión de la obra y figura del modista de Getaria Cristóbal Balenciaga, su contexto y su relevancia en la moda actual.

Las colecciones del Museo incluyen más de 5.500 referencias ligadas a este creador, en su mayoría indumentaria pero también documentación, bocetos, patrones, objetos, etc.

La programación del Museo se compone de:

- Programa Expositivo

    c. Exposición en torno a Balenciaga. Periodicidad Anual. Se trata de exposiciones de aproximadamente 10 meses de duración en las que se muestra una selección de las colecciones del Museo en torno a un discurso que pone de manifiesto una o más facetas del trabajo del modista.

    d. Otras exposiciones temporales en torno al contexto de la Moda: 1-3 exposiciones de entre 3-4 meses de duración que pueden ser de producción propia o no, de indumentaria o no.

- Programa Educativo: trasmisión de contenidos relacionados con Cristóbal Balenciaga, sus valores y la creación de moda a diferentes públicos bajo un enfoque eminentemente práctico.

f. Programa con centros escolares: talleres y visitas taller diseñados por el área pedagógica del Museo y colaboradores externos, adecuados a todos los niveles: educación infantil, primaria, secundaria, bachillerato y FP y ejecutados por el servicio de dinamización cultural.
